

## David Sanchez Bote da MIK kudeaketan ikerketa-zentroko zuzendari nagusi berria.

2012/11/29

David Sanchez Bote ikertzaile eta irakaslea –1976an Zumarragan jaioa– izendatu dute enpresen kudeaketari buruzko MIK ikerketa-zentroko zuzendari nagusi. Zentro hau Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultateari loturik dago. MIKeko zuzendari berriak azaroaren 28an hartu du kargua, eta zentroko aurreko zuzendari Aitor Urzelai ordezkatu du. Hura 2009tik gaur egun arte aritu da postu horretan lanean.

David Sanchez Enpresa-aholkularia eta Mondragon Unibertsitateko irakasle ikertzailea da, Enpresen Zuzendaritzan eta Administrazioan lizentziatua Mondragon Unibertsitatean, eta Ekonomiako eta Enpresen Zuzendaritzako doktorea Deustuko Unibertsitatean. MIKeko arduradun berria 2000 urtetik Mondragon Unibertsitatearekin eta MIKekin harremanetan egon da. Unibertsitate horretako irakasle- eta ikerketa-lanak, beste erakunde batzuetako irakasle- eta aholkulari-lanekin uztartu ditu. Arduradun berriarentzat MIKen zuzendaritza onartzea ‘aukera paregabea izan da, izan ere, ikerketaren mundua oso maite du, eta eginkizun hori aukera ezin hobea da sektore horretan jarraitzeko’.

### Michigan-eko eta Harvard-eko Unibertsitateak

Sanchez Bote 2000. urtetik ikertzaile lanetan aritu da. Lan hori Mondragon Unibertsitateko Informazio Sistemak irakasgaiko irakasle-lanarekin uztartu du. Gainera, Michigan Unibertsitatean visiting scholar izan da, Community Lab ikerketa proiektuaren barruan.

Hainbat liburu argitaratu ditu, hala nola ‘El cuarto sector en Euskadi’, Innobasquek 2012. urtean argitaratua, eta ‘Sectores de la nueva economía 20 + 20: economía abierta’, 2010eko azaroan Escuela de Organización Industrial EOIk argitaratua. Ikertzaile gisa The Mit press-ek 2012an argitaraturiko Robert Kraut-en eta Paul Resnick-en ‘Building Successful Online Communities’ liburuaren argitalpenean ere hartu du parte, besteak beste.

Gainera, nazioko nahiz nazioarteko makina bat hitzalditan eta biltzarretan hartu du parte, eta horietan hainbat ikerketa-lan aurkeztu ditu, hala nola, ‘An open innovation model based on the experience of Basque companies’ lana, 2012an Harvardeko Negozio Eskolak antolaturiko Berrikuntza Irekiari buruzko Nazioarteko 10. Workshopen aurkeztua.

Aholkularitzaren alorrean, David Sanchezek proiektu ugari hartu du parte, Consultoría Artesana en Red enpresaren eskutik, hala nola estrategia digitalari buruzko, enpresa irekiari buruzko eta administrazio publikoetan nahiz enpresa pribatuetan praktikako eta lineako komunitateak abian jartzeko proiektuetan.

2011-2012 epealdian, MIKeko egungo arduraduna ‘Openbasque: lankidetzan oinarrituriko berrikuntza irekirantz’ proiektuko ikertzailea izan da. MIK buru izan duen proiektu hori, hain zuzen, Eusko Jaurlaritzaren Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren Etorrek programak finantzatu du. Epealdi horretan, bere irakasle lana oso oparoa izan da. Hainbat alorretan eman ditu ikastaroak, hitzaldiak, mintegiak eta lantegi praktikoak, bai gure mugen barruan bai kanpoan. Aurten, Escuela de Organización Industrialek eta Mondragon Unibertsitateak antolaturiko ‘Ekintzailtza eta Enpresa Irekia’ ikastaroa zuzendu du.

2001ean abian jarri zenetik, MIK zentroak nazioartean erreferente izatea lortu du enpresen kudeaketaren ikerkuntzan, eta bere ereduak, unibertsitateko ikerketa eta enpresara, erakundeetara eta instituzioetara bideraturikoa, bateratu ditu.



